

# Hondakinak biltzeko sistema aldatu dute

Uztailaren 6tik aurrera amezketarrek edukiontzia txartel bidez ireki beharko dituzte // 6

«PSOE-k pentsioen sistema publikoari eutsiko dio»

**JOXE MARI VILLANUEVA**  
PSE-EE

Tolosako zinegotziak dio azpiegitura soziosanitarioa mantendu, indartu eta berrantolatu behar dela // 3

**Urbietza-Ormazabal eta Urdaneta-Aranguren, finalerdietan**

Behar Zana elkartearen Santio Pilota Txapelketako lehen jardunaldian irabazi dute; gaur jokatuak dira hurrengo partidak // 7



## VILLABONA ESKER ONA AZALTZEKO

Amasa-Villabonako Oria Merkataria Elkarteko kideek ezusteko omenaldia egin diote udalari, azken asteetan emandako laguntza eskertzeko; udalak, bestalde, kultur eskaintza zabala prestatu du uztaileko // 5

ASIER IMAZ



**Parking**  
KARABANAK ETA AUTOKARABANAK  
**Ibai-Gain** 688 778 660

Parking Berrobi: Karabanak eta autokarabanak  
Parkingibaigain@gmail.com  
Karabana edo autokarabanentzat zerbitzu merkea





Langileak, Amarotz auzoan asfaltatze lanak egiten. JOSU ARTUTXA

## Asfaltatze lanak egiten ari dira Amarotz auzoan

Astelehenean hasi ziren, eta bihar arte luzatuko dira; besteak beste, asfaltozko zoladurak zabalduko dira. Lanek eragina izan dute autobus geltokietan

**J. Artutxa Dorronsoro** Tolosa

2019-2023 legealdirako kudeaketa planean jaso bezala, Tolosa herri irisgarriagoa eta iraunkorragoa izatea du helburu udalak. Horrela, herriko zenbait gunen birmoldatzen aritu dira azken hilabeteetan, tartean, San Frantzisko pasealekuan, Gernikako Arbolan eta San Esteban auzoan. Astelehenean, Amarotz auzoan ekin zieten asfaltatze lanei.

Asteka egingo dituzte lanak. Horregatik, biharko 20:00ak bitarte ezin da asfaltatze lanak egiten ari diren eremuan aparkatu. Halaber, lan eremuan dagoen

autobus geltokia zerbitzutik kanpo dago. Bere ordez, elizaren albo batean egongo da (garai batean geratzen zen leku berean). Auzoko 30 zenbakian dagoen geltokian, berriz, berdin mantentzen da zerbitzua.

Lanen barruan asfaltozko zoladurak eta oinarri granularrak fresatuko dira, ondoren horiek berriz betetzeko eta trinkotzeko. Asfaltozko zoladurak ere zabaltuko dira. Horrez gain, errepidearen kontra zeuden zuhaitzak kendu egin dira. Hori dela eta, Usabalgo antenara doan errepidea itxita egon da azken egun hauetan.

## Tolosako udal liburutegiko ordutegia eta zerbitzuak zabaldu dituzte

Goizez dago zabalik, baita asteazken arratsaldetan ere. Ezohiko egoeratik, zenbait segurtasun neurri bete beharko dira

**J. Artutxa Dorronsoro** Tolosa

Duela aste batzuk zabaldu zuen udalak Tolosako udal liburutegia, gutxieneko eskaintzarekin. Aurrerantzean, egunero egongo da zabalik goizez (10:00-13:30), baita asteazken arratsaldetan ere (16:00-19:00).

Liburuak maileguan hartzeko, informazioa eskatzeko, liburutegiko txartela egiteko zein katalogoa edo eLiburutegia zerbitzuak nola erabili ikasteko prestakuntza saioak emango dira. Gainera, helduentzako irakurgela irekita egongo da, eta wifia ere martxan. Irakurgela zerbitzua erabili nahi dutenek, liburutegian eskatu beharko diete bertan irakurri nahi duten liburua. Egunkaririk ezinongo da kontsultatu, ezta ordenagailurik erabili ere.

Helduen liburutegian emango da haur eta helduen mailegu zerbitzua. Liburuak maileguan hartzeko aurrez egin behar da eskaera, katalogoaren bidez edo 943 697 462 telefonora deituz. Bestela, bulegoko bildumatik aukeratu beharko da.

Liburutegira sartu ahal izateko nahitaezkoa izango da musukoa janzteia (6 urtetik gorakoek), eskuak garbitzea, eta markatutako ibilbidea errespetatzea. Horrez gain, erabiltzaile bakoitzak bere poltsa eraman behar du maileguak gordetzeko, bazkide txartela egin nahi duenak bere bolaluma eraman behar du, eta bertara banaka sartu behar da.

## Gaur amaitzen da posta bidezko boto eskaeraren epea

Hauteskunde kanpainari dagokionez, neurri bereziak hartzen ari dira alderdiak, eta bozen egunerako, hautesleku gehiago ezarriko dituzte zenbait udalerritan

**Erredakzioa**

Maiatzaren 19an, Euskal Autonomia Erkidegoko Aldizkari Ofizialean Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde deialdia argitaratu zutenean, Eusko Jaurlaritzak adierazi zuen uztailaren 12ko hitzordura begira posta bidezko botoa sustatuko zuela, posta-bulegoan eskaera egin eta bertan botoak aurkeztuta. Bada, azken hilabeteetan nabarmen ugartu dira eskaerak. 2016ko bozetan halako zortzi ziren eskaerak duela aste batzuk; hautesleriaren %3-5ek posta bidez bozkatzea izaten da ohikoena. Gaur da botoa posta bidez emateko tramiteak egiteko azken eguna.

Correos posta konpainia, gainera, lanean ari da botoa modu telematikoan eman ahal izateko neurriak ezartzeko. Izan ere, Espainiako Hauteskunde Batzordeak duela aste batzuk iragarri zuenez, botoa posta bulegora eraman beharrean, postariari eman ahalko zaio, etxean.

**NEURRI BERRIAK KANPAINAN**

Horrekin batera, COVID-19aren izurriteak baldintzatutako hauteskundeetarako osasun jarraibideak aurkeztu zituzten Estefania Beltran de Heredia Segurtasun sailburuak eta Nekane Murga Osasun sailburuak, duela hilabete. Hauteskunde kanpainan kontaktu pertsonala saihestuko da, baita liburuxkak, loreak,

globoak eta kanpainetako beste ohiko elementu batzuk eskura ematea ere. Eremu itxietan egingo diren ekitaldietan, sarreretan eskuetarako gelak jarri beharko dituzte antolatzaileek.

**HAUTESLEKUEN GORAKADA**

Hauteskunde egunari dagokionez, 741 hautesleku egongo dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan datorren uztailaren 12an: hau da, 2016ko bozetan baino 41 gehiago (sei Araban, 27 Bizkaian, eta zortzi Gipuzkoan). 714 horietatik, gainera, 100 berriak dira. Urruntze soziala bermatzeko, jende pilaketak saihesteko nahiz hauteslekuetarako sarbideak hobetzea izan da igoera. Horrenbestez, Espainiako Estatistika Institutuak hautesleei etxera bidali dien errolda txartela begiratzea gomendatzen du Eusko Jaurlaritzak, tokatzen zaien hauteslekuari dagokionean ea aldaketarik egon ote den egiaztatzeko.

Tolosan, esaterako, kopurua mantenduko bada ere, tokiz aldatuko dituzte hautesleku batzuk. Emeterio Arresekoa, Beotibar frontoira lekualdatuko da, kultur etxekoa, berriz, Zerkausiara, udal musika eskolakoa, Emakumeen Etxera (Inpernu kalea, 5 eta 10), eta Paper Eskolakoa, Berazubiko auzo elkartera (Elkano kalea, 15). Bestalde, Apaizetxea (Andre Mari plaza, 10A), Amaroako auzo elkartea eta Izaskungo eskolak mantenduko dira.

### zozketak

## Atarikideentzat kamixeta eta bisita bat ditugu

**Zatzaizkiten kamixeta eta Hernialdeko serigrafia-tailerrera bisita gidatu bat.**

Tailerra ezagutu, serigrafia eta lan teknika ezberdinak ikusi, parte hartu, probatu eta kamixeta eta bestelako produktuak nola gauzatzen diren bertatik ikusteko aukera paregabea.

(Kamixetaren neurria eta kolorea beltza/txuria aukeran, erabilgarritasunaren arabera. Bisita gidaturako eguna zehaztu eharrekoea.)

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo [www.ataria.eus](http://www.ataria.eus)

## Astelehenean, argi mozketa Rondilla eta Beotibar kaleetan

**TOLOSA //** Uztailaren 6an, astelehena, argi mozketa bat egingo du Tolargi SL enpresak, herriko bi kaleetan, hain zuzen, Rondilla kaleko 4 eta 6 zenbakietan, eta Beotibar kaleko 7an. 08:30etik 10:30era izango da mozketa. Energia elektrikoaren banaketa sarean lan batzuk egin behar dituzte; hori dela eta, elektrizitatea kenduko dute.

## Gazte Topaguneko ikasteko gelaren azken bi egunak

**TOLOSA //** Tolosako Udaleko Kultura Sailak, Gazte Topaguneko espazioa prestatu zuen, ikasteko gela modura tolosarrei eskaintzeko. Gaur eta bihar goizez bakarrik eskainiko da, 9:00etatik 13:00etara. Aurrerantzean, Udal Liburutegian eskainiko da, ezohiko egoeratik beharrezko higiene neurriak hartuz eta edukiera kontrolatuz.

# «Positiboa izan daiteke beste alderdiekin gauzak adostea»

**JOXE MARI VILLANUEVA**  
**PSE-EE ALDERDIKO HAUTAGAIA**

Villanuevaren ustez, ekonomia suspertzeko eta enpleguari eusteko, talka plan bat aurrera eramatea da egokiena; mugikortasunari dagokionez, 'euskal Y'-aren beharra ikusten du eta berehala amaitzeko eskatu du



I.T.

**Iñigo Terradillos Gaztañaga / Irati Saizar Artola**

PSE-EEk Eneko Andueza buru duen zerrenda aurkeztu du Eusko Legebiltzarrerako hauteskundee-tara. Hautagaien zerrendan, 15. postuan dago Tolosan zinegotzi den Joxe Mari Villanueva (Tolosa, 1960).

**Osasun krisiaren kudeaketaz zer balantze egiten duzue?**

Inor ez zegoen prest horrelako egoera bati aurre egiteko. Espainian ez zen antzeko osasun krisirik izan 1918az geroztik. Pedro Sanchezek izan duen ausardia baloratzen dut. Egoera honek zer zekarren jakin gabe, neurri gogorrak hartu ditu, baina denbora pasata konturatu gara hartu dituen erabakiak garrantzitsuak eta eraginkorrak izan direla. Sendotasun bat eskatzen zuen egoera horrek, eta zorionez, Gobernuak emandako erantzunak efektiboak izan dira.

**Jaurlaritzaren azken legealdiko kudeaketaz zer nabarmen-tzen duzue?**

Legegintzaldian, sozialistok Eusko Jaurlaritzako kide izan gara. Sozialistok konpromisoa erakutsi izan dugu: Eusko Legebiltzarrean ditugun eserlekuek balio izan dute euskal herritarren premia larrienei erantzuteko, eta baita ekonomia eta enplegua suspertu, eta kolektibo ahulenei elkartasun eta berdintasun printzipioen arabera erantzuteko ere. Kudeaketa guzti

horrek bere argi-ilunak izan ditu, baina helburu garrantzitsuak lortu ditugu. EAJk eta sozialistek programa bat adosten dutenean, ikusten dugu gure herria gora joaten dela.

**Errealitate berria nola ikusten duzue?**

Aldaketa ikaragarriak datoz, eta nik uste ezinbestekoa dela plan-gintza bat sortzea. Konpromiso eta ekintza instituzionalak eskatuko ditu egoerak, eta erakundek jarrera aktiboa izan beharko dute sektore publikoan garatu beharreko politikak lehenesteko. Azpiegitura soziosanitarioa mantentzea, indartzea eta berrantolatzea ezinbestekoa izango da. Eta gainera, lankidetzat pribatu eta publikoen oreka hori mantenduz. Nik uste, osasun sistema, adinekoen sistema eta hezkuntza sistema ezinbestekoak direla, eta esfortzua egin beharko dela horretan. Baina sistema horiek ez dute funtzionatzen ekonomiak funtzionatzen ez badu.

**Ekonomiari dagokionean, osasun krisiak eragin handia izan du. Zer neurri proposatzen dituzue?**

Gure enpresak indartsuagoak izan daitezen laguntzak bideratu behar ditugu. Enplegu duinak eustearen aldeko apustu bat egin behar da, jarraipen zuzen bat eginez, prekarietateari aurre eginez eta gure ekonomia produktiboa suspertuz. Langileek eta enpresek eutsi eta suspertzeko helbu-

rua partekatu behar dute eta hori lortzeko, Elkarrizketa Sozialerako Mahaiak neurriak adosteko eremua izan behar du. Ekintza horiekin batera, DSBEaz osatutako bizitzeko gutxieneko diru sarreraren neurria funtsezko elementua da pobrezia-aren arrakala ez areagotzeko. Sozialistok talka plan bat proposatzen dugu, enpleguari epe laburrean eusteko eta ekonomia epe ertainean suspertzeko.

**Euskalgintzan, eta zehatzago izateko, euskal hedabideetan, kezka handia dago, eragina na-**

**«Azpiegitura soziosanitarioa mantentzea, indartzea eta berrantolatzea ezinbestekoa da»**

**baria izan delako eta diru laguntzei dagokionez, zalantza handiak daudelako.**

Pandemiak agerian utzi du baliabide teknologikoen erabilerak komunikabide digitaletan eragin handia izan duela. Euskarazko hedabideen kasuan, ekonomia eta kultura arloko enpresa gisa, beraien jarduerari eusteko laguntzak ezinbestekoak dira. Eusko Jaurlaritzatik, Gipuzkoako Foru Aldunditik eta udaletatik euskarazko kultur ekoizpena mantentzearen eta indartzearen alde egin jarraituko dugu.

**Pentsiodunek kezkatuta egoeteko arrazoiak badituztela uste duzu?**

Egoera kezkagarria da, izan ere, ekonomiak behera egiten badu, eta zergen bitartez dirurik biltzen ez bada, ezin dira zenbait gauza ziurtatu. Baina 2018an, Pedro Sanchez gobernuko presidentearen lehen ekintza atzeraeraginezko izaera duen KPIa igotzea izan zen. Ordutik aurrera, pentsioak igo egin dira koefiziente horren arabera. Euskal Herriko eta Espainiako biztanle guztiek badakigu PSOE Espainiako Gobernuan dagoen bitartean pentsioen sistema publikoari eutsiko diola eta KPIaren arabera igoko direla.

**Tolosaldeko osasun sistema eztabaidarako gai izan da azken urteetan. Zer da zuek proposatzen duzuen?**

Gauzak ez dira zuriak eta ez dira beltzak. Errazena da esatea ospitale publiko bat eraiki behar dudala bi urtean, baina gure bailarako egoera are konplexuagoa da. 2019ko martxoan, Legebiltzarreko Osasun batzordearekin izandako bileran, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailari behar diren neurriak har zitzala eskatu genion, eta Tolosaldeko herritar guztientzat osasun laguntza publikoa, unibertsala eta kalitatezkoa eskaini zezatela. Argi dugu, itundutako zerbitzuak betetzen ez badira, kudeaketa publiko eta zuzenaren aldeko aldarria egingo dugula.

**Ingurumenari begira pandemiaren ondorioz kutsadura murriztu dela ere ikusi dugu.**

**Alor honetan zeri ematen diozue lehentasuna?**

Sozialistok jasangarritasunaren aldeko apustu garbia egiten dugu. Baita garraio publikoaren aldekoa ere; mugikortasun jasangarria lortzeko, *euskal Y*-a bezalako azpiegitura baten beharra ulertzen dugu. Azpiegitura hori ahalik eta azkarren amaitu behar da.

**Zuekin batera EAJ-kosatzen du Jaurlaritzako gobernuak. Horrela ikusten duzue hurrengo legealdia ere?**

Gure esperientzia EAJrekin abaragarria izan da. Hala ere, positiboa izan daiteke beste alderdiekin gauzak adostea, baina oinarri etiko ukaezin bat onartzen dutenekin soilik partekatu ahal izango dugu gobernuak. ETaren historia-rekin zainak oraindik irekita ditugu, eta nik uste diskurtso etiko bat oraindik beharrezkoa dela.

**Gainerako alderdiak nola deskribatuko zenituzke?**

Alderdi Popularrak Espainiako Gobernuan dagoen bitartean du indarra Euskal Herrian. EAJri dagokionez, desberdintasun ideologiko handiak ditugu, baina funtsezko gaietan akordioak lortzeko gai gara. EH Bilduk itxura instituzionala du, funts nazionala soilik eta parlamentuko bere eginkizuna EAJ neurtzea izan da. Podemos beheraka doa, eta kontraesanak dituzte: Espainian sozialistekin akordio batera iritsi dira, baina Euskal Herrian beti distantzia markatzen dute.

Ibilaldi lasaia egiteko aukera ematen du Asteasuko Elizmendi auzotik Zizurkilgo Elbarrena auzoraino doana. Herriguneko plaza bitarte batez ere, naturaz eta paisaiaz ederki gozatu daiteke.

## Zalduko zelaietatik barrena

Imanol Garcia Landa

**T**olosaldeak baditu ingurune aski ezagunak, eta beste batzuk ezkutuan daude. Azkenetakoak da Asteasuko Elizmendi auzotik Zizurkilgo herrigunea bitartean dauden Zalduko zelaia.

Ibilaldia Asteasuko autobus geltokitik hasiko da. Aiara doan errepidea gurutzatu ondoren (kontuz autoekin), Agoteenea etxearen eskuinetik hartu eta Elizmendirantz jo behar da. Agerrebekoa eta Agerremendi baserrien aurrean dagoen panelak erakusten duenez, tartetik doan bidea hartu behar da, Amusiturri baserrira iristeko.

Bide hori hartzerakoan pixkana naturan murgiltzen garela sentituko dugu. Begien aurrean berdea izango da nagusi. Behin Amusiturri baserrira iritsitakoan, azpitik doan pista jarraitu eta ezkerrera egiten duena hartuko dugu, Amusiturri erreka gurutzatzeko. Ingurune lasaia da.

### ALDAPARIK PIKOENA

Erreka gurutzatu ondoren hasten da ibilbideko aldaparik pikoena. Hori bai, ez da oso luzea, eta aldaparen bukaerara iristean ikusten den paisaiak merezi du esfortzua. Aldapak Sagar-gaztegi baserri azpiraino eramaten du, eta hor bidea ezkerretara hartu behar da. Berehala, Zalduko zelaia agertuko dira, aldaparen bestaldean. Horixe izango da ibilbidearen hu-



Asteasuko Elizmendi auzotik Zizurkilgo herrigunea bitarteko bideak paraje eta ikuspegi ederrak utziko dizkio ibiltariari. I.U.

rrengo zatia. Aurretik, baina, Unbaranbe baserri aldera goazela, Elizmendi auzoa agertuko zaigu begien aurrean, eta urrutiago eta ezkerretara, Larraul. Eguraldiak laguntzen badu, Larraul gainean Hernio mendia eta bere mendilerroa ikusteko aukera izango da.

### UNBARANBE BASERRIA

Unbaranbe baserrira iritsi aurretik, eskuinera eta behera doan bidezidorra hartu behar da, Zalduko zelaietara. Eremu zabala eta lasaia dira Zalduko zelaia. Hori zeharkatu ondoren, Zaldu baserri papera iritsiko da ibiltaria. Zizurkildik datorren bidea eskuinetara hartu eta

emeki-emeki Zizurkilgo herriguneko plazara iritsiko gara. Bertan dago Donemiliaga eliza eta bere Zimiterioa. Azken ho-

**Oro har, malda errazak dituen ibilbidea da; 5.400 bat metroko bidea egin behar da**

rrek, pilotalekua du eta askotan izaten da herritarren topagune.

Elizaren aldamenetik igaro eta Elbarrena auzora doan errepidea hartu behar da. Ezkerretara zenbait etxe ikusiko dira, eta tartean San Migel basiliza. Alde horretara egingo dugu, eta gero eskuinera hartuko dugu



errepidearen paralelo doan pista. Berriz bat egingo dugu errepidearekin, eta behin bidegurutzera iristerakoan, eskuinera hartuko dugu, Zizurkilgo Elbarrenan sartuz.

Biribilgunera iristerakoan, Villabonarantz hartuko dugu. Trenbide azpitik igaro ondoren, eskuinetara joan eta tren geltokira helduko gara, ibilbidea amaituz.



Atal hau babesten du.



eizmendi anaiak

kirolak eta armategia

Kalea Berria, 19 Villabona / 943 69 26 23

# Kultur eskaintza zabala prestatu dute

Amasa-Villabonako Udalak kultur ekitaldiz bete du uztaila; Santio egunean festarik izango ez bada ere, eskaintza zabalagoa izango da

**Asier Imaz** Amasa-Villabona

Amasa-Villabonan aurten ez dute Santio Jairik ospatuko, baina kultur eskaintza indartzea erabaki du udalak.

Udalaren esanetan, Jai Batzordeak aurten Santio Jairik ez izatea erabaki ondoren, herritarrei eskaintza aberatsa prestatzen aritu dira: «Egoera honetan oso zaila da jende pilaketek sortzen duten arriskutik aldentzea, horregatik erabaki zuen Jai Batzordeak festak bertan behera uztea. Hala ere, herritarrak kultura gosez izango direla iruditzen zaigu, eta horregatik udako kultur programazio duin eta askotariko bat prestatu dugu, ustez». Ekitaldiak askotarikoak izango dira eta gaur hasi eta uztailearen 31ean bukatuko dira.

Ekitaldi gehienak kalean izango dira, nahiz eta eguraldi txarra eginez gero ikastolan egingo lirartekeen.

Horrez gain, Santio Egunean, uztailearen 25ean, ekitaldiak

«pixka bat indartuko dira». 12:00etan haurrentzako kale antzerkia egongo da, 19:30ean Amak taldearen kontzertua eta gauerdian helduentzako kale antzerkia.

Irailera begira, udaletik azaldu dutenez, dantza zirkuituko bi ikuskizun antolatu nahi dituzte kalean, Aukeran eta Dantzaz konpainiarekin.

Udal ordezkariak «egoerak eskatzen duen arduraz jokatzeari» eskatu dute, eta segurtasun neurriak errespetatzea. Izan ere, ikuskizunak izango diren esparru guztiak hesituak izango dira, eta esparruaren barruan izango diren aulkietan eserita bakarrik ikusi ahal izango dira. Sartzean eta ateratzean maskara jantzita eraman beharko da, nahiz eta behin aulkietan eserita, kendu ahal izango den. Aulki-multzoak jarriko dira, elkarrekin bizi diren pertsonak, ahal dela, elkarrekin eseri ahal izateko. Eta antolakuntza lanetan ari direnen argibideak jarraitzeko eskatu dute.



OMENALDIA

Beatriz Unzué Amasa-Villabonako alkatea eta Xabat Laborde zinegotzia ezustean hartu zituen atzo, Oria Merkatari Elkar-teak. Azken hilabeteetan udalak herriko komertzioekin izan duen jarrera eskertzeko omenaldia egin zieten. A. IMAZ

## AMASA-VILLABONA • UZTAILEKO KULTUR PROGRAMAZIOA

*Doan*

**uztailak 2** / 19:00 / kale antzerkia (haurrak)

*sardiña bakalau* / arroako plaza / ikastola (eguraldi txarra)

**uztailak 3** / 22:30 / zinema kalean (16+)

*errementari* (euskaraz) / erreboteko plaza / ikastola (eguraldi txarra)

**uztailak 9** / 22:00 / antzerkia (helduak)

*sex o no sex* / gurea antzokia

**uztailak 10** / 22:30 / zinema kalean (12+)

*ha nacido una estrella* / erreboteko plaza / ikastola (eguraldi txarra)

**uztailak 16** / 20:00 / musika

*howdy* / erreboteko plaza / ikastola (eguraldi txarra)

**uztailak 17** / 22:30 / kale antzerkia (helduak)

*psike* / erreboteko plaza / bearzana frontoia (eguraldi txarra)

**uztailak 23** / 20:00 / musika

*habi* / erreboteko plaza / ikastola (eguraldi txarra)

**uztailak 24** / 19:00 / zinema kalean (haurrak)

*ballerina* (euskaraz) / arroako plaza / ikastola (eguraldi txarra)

**uztailak 25** / 12:00 / kale antzerkia (haurrak)

*kontu kantari 2, mendian ibiltari* / ikastola

**uztailak 25** / 19:30 / musika

*amak* / arroako plaza / ikastola (eguraldi txarra)

**uztailak 25** / 00:00 / kale antzerkia (helduak)

*tonbola* / erreboteko plaza / bearzana frontoia (eguraldi txarra)

**uztailak 26** / 19:00 / zinema kalean (haurrak)

*luis eta estralurtarrak* (euskaraz) /  
erreboteko plaza / ikastola (eguraldi txarra)

**uztailak 31** / 22:30 / zinema kalean (16+)

*lo dejo cuando quiera* /  
erreboteko plaza / ikastola (eguraldi txarra)

Ikuskizunak izango diren esparru guztiak hesituak izango dira, eta esparruaren barruan izango diren aulkietan eserita bakarrik ikusi ahal izango dira.



Sartzean eta ateratzean maskara jantzita eraman beharko da. Behin aulkietan eserita, kendu ahal izango da.



Aulki-multzoak jarriko dira, elkarrekin bizi diren pertsonak, ahal dela, elkarrekin eseri ahal izateko.



Segurtasuna ezinbestekoa da. Jarraitu guri laguntzeko dauden langileen argibideak, eta arduratsua izan.



Kultura  
VILLABONA

AMASA-VILLABONA



Villabonako Udala

BERPIZTU

# Txartela, edukiontziak eta poltsak jasotzeko azken eguna

Amezketako Udala uztailaren 6an hasiko da hondakin bilketa sistema berriarekin; kultur etxean beharrezko materiala jasotzeko azken eguna da gaur

**Eneritz Maiz Etxarri** Amezketako

Amezketako Udalak uztailaren 6an jarriko du martxan hondakin bilketarako sistema berria. Aldez aurretik herritarrek informatzeko bilerak egin dituzte, eta aste honetan, bilketa berrirako beharrezkoa duten materiala banatzen ari zaie herritarrei. Gaur da materiala jasotzeko azken eguna.

Kultur etxean ari dira materiala banatzen, 11:30etik 14:00etara edo 17:00etatik 20:00etara dago jasotzeko aukera. Sistema berriarekin hasi ahal izateko herritarrek nahitaezkoa dute txartelak, edukiontziak eta poltsak jasotzea.

Edukiontzi berriak errefusarentzat eta organikoarentzat izango dira, eta txartel elektronikoko bat banatuko da etxebizitzako bakoitzarentzat. Txartel elektronikoa beharrezkoa izango da organikoaren eta errefusaren edukiontziak zabaltzeko. Organikoaren edukiontziak ez du mugarik izango irekitzeko. Aldiz, errefusaren edukiontzia as- tean hiru aldiz irekitzeko aukera izango da, baina behar bereziak dituztenek –pixoihal asko, esaterako– muga zabaltzeko eskaera egiteko aukera izango dute.

Ontzi arinen eta papera eta kartoiaren edukiontziak zabalik egongo dira, behar denean erabiltzeko.

Herriko konposta guneak kendu egingo dituzte, «arautegi berriaren baldintzekin ez delako



Herritarrek beharrezkoa duten materiala jasotzen ari dira, kultur etxean. N. ROLDAN DE ARANGUIZ

bideragarria», azaldu dute udaletik. Baina, hondakin organikoa kudeatzeko herritarrei bi aukera jarri dizkiete eskura.

Alde batetik, organikoa kaleko edukiontzi marroietara botatzea, edo bestetik, norberak berea etxean kudeatzea. Hau da, azken aukeraketa eginez gero, txartelaren bidez ezingo da edukiontzi marroia ireki. Organikoa etxean kudeatu nahi duenak eskaera kultur etxean bertan egin beharko du.

Hondakin organikoa kaleko edukiontzi marroietara botatzeko ontzi marroiak eta poltsa konpostagarriak udalak dohain banatuko dizkie herritarrei. Eta organikoa etxean egiteko banakako konpostagailuak ere

Tolosaldeko Mankomunitatetik dohain eskuratu ditzakete.

## ARRAZOIAK ETA HELBURUAK

Amezketako Udalak hondakin bilketan aldaketak emateko arrazoiak eman dizkie herritarrei. «Konpostaren kudeaketa arautzen duen araudi berri eta zorrotza indarrean dago», arrazoitu dute, eta «egun udalak kudeatzen du hondakin organikoa, eta sistema gainezka dago», argitu dute.

Helburuen artean, berriaz, «hondakinen bilketa sistema hobetu, eta gaikako bilketa areagotzea» dute. Era berean, edukiontzi marroietan jasotako hondakin organikoa konpost bilakatzea dute helburu, eta

txartel elektronikoak «hondakinen bilketa sistemaren erabiltzaileen banakako jarraipena ahalbidetzen du, bilketa sistemaren eraginkortasuna hobeto neurtu eta kudeatzeko», azaldu dute.

Ekonomikoki hondakin bilketa sistemak 42.024,83 euroko kostua izango du Amezketan. Tolosaldeko Mankomunitateari udalak 29.844,83 euro ordainduko dizkio, eta udal langilearen kostua 12.180 eurokoa izango da. Aurten 24.250 euro jasoko dituztela tasetatik aurreikusitako dute, eta beraz, udalak 17.774,83 euro jarri beharko ditu hondakinen bilketa ordaintzeko: «Udal zerbitzu baten helburua aldea ahal den txikiena izatea da».

## Altzoko liburutegia eta haur gela itxita daude

**ALTZO //** Altzoko liburutegia eta haur gela ekainaren hemeretziak geroztik itxita daude, baina udaletik jakinarazi dutenez, uztailan libururen bat hartu edo aldatu nahi duenak aukera izango du. Horretarako, udal bulego-etara joan beharko da goizez. Eta aurreratu dute, irailean ere, liburutegi zerbitzua udal bulegoetatik eskainiko dela.

## Etxebizitza tasatuak eraikitze lanekin hasiko dira Altzon

**ALTZO //** Altzoko Udalak jakinarazi du Altzo Muñon sei etxebizitza tasatu eraikitze lanekin hasiko direla. Hiru interesatuk izena emana dute udaletxean, eta beste hirurek izena eman dezakete. Horretarako eskaera orria, errenta aitortpena eta errolda agiria aurkeztu beharko dituzte. Interesatuak udaletxean etxebizitzaren planoak ikusteko aukera izango dute.

## Errefusaren atez ateko bilketa martxan jarri da berriaz

**IKAZTEGIETA //** Larrialdi egoeraren amaituta hondakin bilketa lehengora itzuli da Ikaztegieta. Errefusa biltzeko edukiontzi handiak kendu dituzte, eta atez ateko bilketa berreskuratu da. Udaletik gogorarazi dute hondakinak zuzen sailkatuta dagokion ontzi eta egunetan atera behar direla. Pixoihalak ontziarekin batera ondo korapilatutako poltsa itxi batean atera behar dira, eta debekatuta dago hondakinak poltsetan eta lurrean uztea. Maskara eta eskularruak errefusa direla argitu dute.

## Hilberriak eta urteurrenak



### Nekane Beain Arteaga

Gure mutikoen ikastola edota futbola dela... horretxek eman digu elkarri ezagutzeko aukera. Ona, leiala, ikusi dugu ama bikaina zarela. Zure indarra bidaltzen segi zauden lekuan zaudela... Etxeko, famili nahiz lagunok segi dezagun aurrera.

Aratz, Izaro, Iñigo, muxu haundi bat!! Eskarrikasko Nekane!! Oinatz, Haritza, Peio, Goiatz

ORDIZIA, 2020ko uztailaren 2an



### Pako Irastorza Mendizabal

Martxoaren 28an hil zen 80 urterekin

Elkarrekin pasa ditugun egun alaiak gogoan izango ditugu gure bihotzean.

Bere sendiak.

ZEGAMAN, 2020ko uztailaren 2an  
OHARRA: Hileta meza uztailak 3, arratsaldeko 7etan, Zegamako S. Martin parrokiaren ospatuko da.

## ataria jarrita Urola Kostako eta Goierriko Hitzetan DOAN

### Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €  
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €  
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €  
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95  
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

## Zazpi Iturriko arduradun berriekin, entrenamendu irekiak

**Erredakzioa** Amezketa

Xalton Zabalak urte askotan zehar egindako lanari lekukoa hartuz, herriko hainbat gaztek Zazpi Iturri pilota klubaren ardura hartu dute. Ilusio handiz ekin diote lanari, eta ikasturtea ofizialki irailean hasiko bada ere, uztailan zehar entrenamendu irekiak antolatu dituzte. Honela, herriko haurrek aukera izango dute pilota entrenamenduak probatzeko, astelehen eta asteazkenetan 10:00etatik 13:00etara adin bakoitzak bere txanda izango duelarik.

Txandak horrela zehaztu dituzte: 10:00etatik 11:00etara, aurrebenjaminak (2013-2014) eta benjaminak (2011-2012); 11:00etatik 12:00etara, alebinak (2009-2010) eta infantilak (2007-2008); eta 12:00etatik 13:00etara, kadeteak (2005-2006).

## Lehen partida irabazi du Patxi Zeberio bere ibilbide berrian

**Erredakzioa** Elduain

Garaipenarekin hasi du Patxi Zeberio erremontistak bere ibilbide berria. E-remonte Beti Euskal Jai enpresa sortu berri da, eta berearekin egin du hitzarmena Zeberio. Enpresak 2020ko Iruñeko Alde Zaharreko VI. Erremonte Txapelketa antolatu du, lehen ekitaldi moduan, eta estreinako partida jokatu zuen elduaindarrak, ostiralean, Aoizko Toki Eder frontoian. Jokatu eta irabazi: Azpirozekin batera 31-35 irabazi zioten Ezkurra eta Agirrezabalari.

Bukaera bizia izan zuen partidak, Zeberio eta Azpiroz 31-29 galtzen ari baitziren, baina azken sei tantoak egitea lortu zuten. Asteburu honetan jokatuko dira final-laurdenetako bigarren jardunaldiko partidak, bihar eta etzi, 22:00etan hasita, Aoizko Toki Eder frontoian. Hirugarren jardunaldia uztailaren 10ean eta 11n jokatu da.



## MARTXAN JARRIDAPA LA TXAPELKETA

Tolosa CF-ko palistek antolatzen duten Berazubiko 52. Pala Txapelketa martxan jarri zen atzo, uztailako lehen egunarekin. Gizonezkoen 2. mailako partida bat izan zen estreinakoa, hain justu, Lopez-Etxeberria eta Aldazabal-Maiza bikoteen artekoa (irudian). Txapelketaren hiru modalitateetan lehen fase bat jokatu da, gutxienez uztailaren 22ra arte iraungo duena. I.G.L.

## Finalerdietara sailkatu dira lehen bi bikoteak

Urdaneta-Aranguren eta Urbieta-Ormazabal daude Santio Pilota Txapelketako finalerdietan

**Imanol Garcia Landa**  
Amasa-Villabona

Behar Zana elkarteak antolatzen duen Santio Pilota Txapelketaren lehen jardunaldia jokatu zen asteartean, eta dagoeneko bi bikote finalerdietan daude. EPLE elkarte Urdaneta-Aranguren

bikoteak 22-19 irabazi zien Gazteleku taldeko Etxezarreta-Arrate bikoteari lehen partidari. Bigarren, Behar Zana Xabi Urbietak eta Aitor Ormazabal bikoteak 22-5 irabazi zioten Donostiako Alde Zaharra elkarte Torre eta Atxa bikoaren aurka.

Gaur jokatu da final-laurdenen bigarren jardunaldia, 18:30ean hasita, Bearzana frontoian. Lehen partidari, Hernani ordezkatzuz Salaberria-Labaka bikotea Tolosa CF-ko Elola-Etxeberria bikotearen aurka ariko dira. Bigarren partidari, Intza el-



Urdaneta-Aranguren eta Etxezarreta-Arrate arteko partidaren une bat. I.G.L.

karte Artetxe-Odrizola bikotea Gazteleku eta Usurbilgo Eskudero-Urruzolaren aurka lehiatuko dira.

Beste hainbat txapelketa bertan behera geratu dira, baina Behar Zanatik egitasmo berezi bat antolatu dute bere elkarte jua-

benil mailako pilotariekin. Asteburu pasa egingo dute, eta tarteetan pilota partidak jokatu dituzte Oresako frontoian, larunbatean, 17:30ean, nahi duenak ikusteko aukera izango delarik. Hiru bikote ariko dira eta euren arteko torneo jokatu dute.

## Larraulek hartuko du bigarren saioa

**Erredakzioa** Larraul

Urrezko Banakako Aizkolari Txapelketaren bigarren saioa egingo da Larraulen, larunbat honetan, uztailak 4, 12:00etan hasita. Final-laurdeneko norgehiagoka jokatu dute Ugaitz Mugertza eta Ruben Saralegi aizkolariek.

Larraulgo herri kirol jaialdian ere beste bi saio izango dira. Batetik, Hiru Hamarreko Harri-jasotze Txapelketan, Xabi Peñak eta Jokin Eizmendik parte hartuko dute. Azken honek Telle-

riaren lekua hartu du, mina hartuta baitago.

Bestetik, Emakumezkoen Harri-jasotzeko Txapelketaren beste saio bat izango da. Karmele Gisasola *Zelai III.a*-k parte hartuko du bertan.

**LEHEN SAIOKO EMAITZAK**

Aurreko larunbatean izan ziren hiru txapelketa horien lehen saioak, Apatia Industriagunean. Urrezko Banakako Aizkolari Txapelketan Jon Rekondo leitzarrak erraz irabazi zion Arraia-rango Iñaki Azurmendiri, eta

orain Iker Vicenteren aurka lehiatuko da finalaurrekoan.

Hiru Hamarreko Harri-jasotze Txapelketako aurreneko neurketan Urdax Magunazelaia eta Mikel Lopetegi *Urra* lehiatu ziren elkarren aurka. Ia erabateko berdintasuna eman zen norgehiagokan, izan ere, 44na altxaldi egin zituzten 125 kiloko harriekin. Emakumezkoen Harri-jasotze Txapelketan, Udane Ostolaza gazte oriotarrak 50 kiloko zilindrikoari 15 altxaldi eman zizkion, 50 kiloko kubikoari bedertzi, eta pisu bereko bolari, 12.

**BILLABONA FKE**  
Arratzain futbol zelaia

Izen-ematea zabalik

**Futbol eskola**  
labur.eus/ntvfg

**Alebin neskak**  
labur.eus/NLZgh

 Billabona Fke



**OSTEGUNA, 2020KO UZTAILAK 2**  
**Argitaratzailea:**  
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM  
**Lege Gordailua:** SS-1323-2013  
**Koordinatzailea:** Rebeca Calvo Gonzalez  
**Kudeatzailea:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe  
**Egoitza:** San Esteban, 20, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95.  
**E-posta:** ataria@ataria.eus  
**Publizitatea:** 661678 818. publi@ataria.eus

**Tolosa:** 687 410 082. tolosa@ataria.eus  
**Villabona-Aiztondo:** 687 410 022.  
villabona-aiztondo@ataria.eus  
**Anoetalea:** 687 410 022.  
anoetaldea@ataria.eus  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus  
**Alegialdea:** 687 410 034.  
alegialdea@ataria.eus  
**Kirolak:** 673 06 1132. kirolak@ataria.eus  
**Bezera arreta zerbitzua:** **943 30 43 46**



www.ataria.eus

**ATARIA IRRATIA**  
**107.6 FM**

**Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:**  
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

**Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:**



# OSTEGUNA 02

## AGENDA

### Deialdiak

**Tolosa.** 22. Amaroeko Antzerki Astea: 17:00etan Pailaztanaren *Inpro-komik*; 18:00etan pintxopoteatro Imanol Ituiño, Mago Diego eta Maider Alcelayekin; eta Poprockpomperoren *Rastrojo y Anisete* 20:00etan.

**Anoeta.** Furgobaratza 18:00etan, Baratzte Parkean.

**Villabona.** Haurrentzako *Sardiña bakalau* kuskizuna, 19:00etan Arroako plazan.

**Tolosa.** TolosandBlues: Mojo Hand taldearen kontzertua 20:00etan, Euskal Herria plazan.

## 28 KANALA

### OSTEGUNA

**11:00.** Elkarriketap (Sustrai Colina).

**11:30.** Gaurkoan Tolosaldeko

**12:30.** 1, 2, 3 hemen da Miru!

**16:00.** Lotsagabe

**17:30/21:30.** Gaurkoan Tolosaldeko

**22:00.** Ezetz asmatua

### OSTIRALA

**11:00.** Ajoarrieroa

**11:30.** Gaurkoan Tolosaldeko

**12:30.** 1, 2, 3 hemen da Miru!

**17:00.** Atelier

**17:30/21:30.** Gaurkoan Tolosaldeko

**22:00.** Hauteskuneetako elkarriketak (Pello Atxukarro, PP)

**23:30.** Gaurkoan Tolosaldeko

## ATARIA IRRATIA

**09:00-11:00. Pasahitza.** Eguraldia, azken berriak, egunari begirada eta elkarriketa (PPko Pello Atxukarro).

**11:00-12:00. Eutsi Goiari.** Kirola.  
**14:00. Entzuteko jaioak.** Musika.  
**16:00. Zebrabidea.** Magazina.  
**18:00.** Goizeko saioen onena.  
**20:00. Mestibull.** Musika.

## + FARMAZIAK

### Gaur

**TOLOSA. Egunekoa.** Ignacio Olarraaga Aranburu. Korreo kalea, 2.

Telefono zenbakia: 943 67 0128.

**TOLOSA. Gauekoa.** Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6.

Telefono zenbakia: 943 67 5118.

## EGURALDIA

### IKER IBARLUZEA



**Gaur.** Giro kaskarra. Fronte batek eta ipar-mendebaldeko haize biziak giro estalia eta freskoa ekarriko digute. Euri zaparradak izango ditugu egun osoz. Ez dira zaparrada indartsuak izango, baina egun guztian zehar botako du. Tenperaturak nabarmen egingo du behera eta maximoa ez da 17-18 gradutik pasako.



**Bihar.** Giroak altxatzera egingo du. Goizean oraindik ipar ukituko haizearekin hodei ugari eta euri-langar pixka bat izango dugu. Egurditik aurrera haizeak ipar-ekialdera egin, atertu eta ostarteak zabalduko dira. Tenperaturak gora egingo du, maximoa 20-21 graduan kokatuz.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



## ANTZERKIAK EZ DU HUTSIK EGIN

**Amarozko Antzerki Astea** ari dira ospatzen. Asteartean hasi ziren eta larunbata bitarteko egitaraua dute aurretik. **Atzo Nerea Ariznabarreta** eta **Mariano Hurtadoren Kontukontzertua** izan zuten lehenik (irudian) eta **Bea Larrañagaren Aire Hemendik** gero. Arratsalde pasa ederra egiteko aukera izango da gaur; 17:00etan Pailaztana izango da, 18:00etan pintxopoteatro egingo dute auzoan zehar eta bukatzeko Poprockpompero taldea ariko da. J.A.

## ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20  
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,  
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus · 107.6 fm ·

